



EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLANA
ELGOIBARKO UDALEAN
VI. plangintzaldia (2018-2022)

Elgoibar, 2018ko ekaina

AURKIBIDEA

SARRERA

1. V. ERABILERA PLANAREN EBALUAZIOA ETA VI. PLANA EGITEKO DIAGNOSIA.
2. ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA.
3. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA.
4. VI. ERABILERA PLANAREN HELBURU OROKORRAK.
5. VI. PLANGINTZALDIRAKO PROPOSATURIKO LAN ILDOAK.
6. NORMALIZAZIO EKINTZAK.
7. AZPIEGITURA.

ERANSKINAK:

- I. ERANSKINA. Elgoibarko Udaleko hizkuntza eskakizunak eta atalen sailkapena.
- II. ERANSKINA. V. Plangintzaldian egindako BIKAIN kanpo ebaluazioa.
- III. ERANSKINA. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideak.
- IV. ERANSKINA. HIZKETA aplikazioaren datuen txostena.

SARRERA

Ezaguna denez, euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Lehen plangintzaldia 1990ean jarri zen martxan, eta 2018ko urtamilaren 1ean eman zitzaion hasiera seigarrenari.

Lehenengo plangintzaldiak Administrazioako langileak euskalduntzea eta alfabetatzea izan zuen helburu nagusi. Horrela, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman ziren euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileen kopuruan. Dena den, bigarren plangintzalditik aurrera administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra jaso zen.

Hori horrela, 86/1997 Dekretuak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu beharra ezarri ziren euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak jaso ziren aipatu Dekretuaren 18. atalean. Dekretuak indarrean jarraitzen du.

Urrats horiekin loturik, Elgoibarko Udalak indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, berari dagokion **euskararen erabilera normalizatzeko plana** landu zuen.

Bada, 2018an hasi eta 2022ko abenduan amaituko den VI. Plangintzaldi honetan ere, orain arteko bidea sendotu nahi da, eta ezagutzak garrantzia izaten jarraituko badu ere, V. Plangintzaldian bezala, erabilera izango da erronka nagusia; *euskara ere lanerako hizkuntza* "normala" bilakatu nahi dugu, eta, modu horretan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen jarraitu. Horretarako, langile gehiago sartuko dira erabilera planetan, eta motibazioaren bidez, metodologia erraza eta malgua erabilia, eta beharrezko baliabideak jarritz, **hizkuntzen erabileran, berdintasunerantz joko da: euskaraz eta gaztelaniaz jardutera; hori bai, euskarari lehentasuna emanda eta euskarazko sortze lana areagotuta.**

Horixe izango da, hain zuzen ere, **VI. Plangintzaldiaren helburua: euskara ere lan hizkuntza "ohikoa" bilakatzea, hau da, Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasunerantzko pauso eraginkorrak ematea.**

Administrazioak bermatu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, eta une honetantxe eman daiteke urrats garrantzitsu hori, hain zuzen ere, aurreko plangintzaldien bitartez hein handi batean, ezagutza maila ziurtatu delako eta erabilerarako pausuak ere eman direlako.

Aurretik burututako plangintzaldiei egokitzapenak egin ostean, argi dago horien kudeaketa eta, batez ere, jarraipena egin behar zaiela, emankorrak izan daitezten. Horretarako, urtero kudeaketa plana egingo da eta datuak Hizketa aplikazioan (**ikus IV. Eranskina**) txertatuko dira planaren bukaera emaitzen balorazioa egin ahal izateko. Hizketa aplikazioa Eusko Jaurlaritzak VI. Plangintzaldirako sortu duen aplikazio informatikoa da eta aukera emango digu atalez atal aurreikuspena egin eta jarraipena egiteko.

I. V. ERABILERA PLANAREN EBALUAZIOA ETA VI. PLANERAKO DIAGNOSIA.

Atal honetan jasotzen da Elgoibarko Udalean euskararen erabilerak izan duen bilakaera, esparruz esparru, eta plan berrirako egin den diagnosis. Datu horiez gain, eta batez ere, hurrengo urteetarako helburuak eta lehentasunak finkatzeko orduan, oso baliagarriak izan dira 2016an Bikainerako ebaluazioan jasotako ondorioak.

Aipatzekoa da Elgoibarko Udalak urrezko Bikain ziurtagiria lortu zuela 2016ko abenduan. Talde ebaluatzaileak txosten bat (ikus II. Eranskina) aurkeztu zuen, alde batetik, Elgoibarko Udalarik ordura arte egindako lana aitortzeko, eta bestetik, aurrera begirako orientabideak eskaintzeko. Egia esan, 2015ean eta 2016an Udalak ahalegin berezia egin zuen euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzeko, eta lan-hizkuntza bilakatzeko ere neurriak jarri zituen abian. Horren adierazgarri dira 2016an onartutako Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideak (ikus III. Eranskina). Beraz, aurreko erabilera-plana oso emankorra izan dela esan beharra dago.

Bikain ebaluazio-prozesu osoan zehar eskuratutako informazioa oinarri hartuta, talde ebaluatzailearen iritziz, hauek dira Elgoibarko Udalak dituen **hiru indargunerik garrantzitsuenak**:

- **Planteamendu koherentea** izan du hastapenetatik, sail guztiei eta lan-talde guztiei eragiten diena. **Helburu egingarriak** definitu eta planak **modu eraginkorrean garatu ditu**.
- **Baliabide egokiak** ditu eta beharren arabera doitu ditu, betiere, **etengabeko hobekuntza ahalbidetuz**.
- **Profesionalen ezagueran maila altua** lortu du, baita aldi baterako kontratazioetan ere; era berean, **ordezkari politikoek hizkuntza gaitasuna** ere handia da. Oraingo ahalegina **erabilera sustatzera** bideratuko da bereziki.

Bestetik, hauek izan daitezke erakundeari aurrera egiten **gehien lagun diezaioketen palankak** eta etengabeko hobekuntzan lagungarri izan daitezkeen alderdiak:

- **Langileek zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna dute**, eta, hortaz, **herritarren hizkuntza irizpideak bermatuta daude**, bai ahoz bai idatziz. Nolanahi ere, idatzizkoari dagokionez, oraindik ere, **dokumentu batzuk gaztelaniaz sortu eta itzulpen zerbitzura jotzen da**. Euskararen erabilera normalizatzeko garrantzitsua da arlo horretan aurrerapausoak ematea: behar den kasuetan **trebakuntza ematea, dokumentuen eredu normalizatuak** erabiltzea, Xuxen zuzentzailea bezalako baliabideak eta abar erabiltzea... Horrekin batera, ondo legoke langileen **motibazio eta sentsibilizatorako** hasitako bideari jarraitzea eta, Euskara Taldearekin egin den bezala, gainerako langileekin ere saioen bat egitea.
- Erakundea osatzen duten **pertsonen euskara gaitasuna handia** izanik, kanpo harremanetan euskararen erabilera areagotzeko, komeniko litzateke **Udalaren hizkuntza politikaren berri ematea** era esplizituan homitzaile, bezero, aliatu eta gainerako erakundeei. Horretaz gain, komenigarria litzateke **kontratazioak egitean** eta diru-laguntzak ematean jarritako hizkuntza irizpideen jarraipena modu sistematizatuan egitea.


- Herriak duen euskaldun kopurua kontuan izanda, agian, **hizkuntza politikan aurrerapauso bat emateko**, aukera ona izan liteke haur eta gazteen kolektiboaz gain, beste kolektibo batzuk identifikatzea eta horientzat bideratzen diren ekimen batzuk euskara hutsezkoak izatea.

Hori guztia kontuan izanik, hona hemen, 2013-2017 planaren ebaluazioa eta 2018-2022 planerako diagnosa.

ZERBITZU HIZKUNTZA

I.1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

I.1.1. Errotulazioa (sailtako errotuluez gain, karpetak, artxiboak, apaletako izenak...) eta ikus-entzunezkoak.




Euskararen presentzia elementu horietan, beraz, bermatuta dago euskararen erabilera errotulazioan. Nabaria da euskara hutsezko erabilerearen igoera, % 40koa izatetik % 67 izatera pasa baita. Aipatu beharra dago 2013-2017 planaren hasieran ahalegin handia egin zutela udal sailtako langileek karpeta, artxibo eta horrelakoetan terminoak euskaratzen.

Ikus-entzunezkoei dagokienez, hasi berria da Udala horrelako euskarniak erabiltzen, beraz, daturik ez izan arren, irizpidea ikus-entzunezkoetan, bi bertsio erabiltzea da: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Salbuespena honakoa izango da: jasotzaileak haur eta gazteak direnean eta jasotzailea euskalduna denean, euskarazko bertsioa erabiliko da.

Helburua: Ageriko elementuetan euskararen erabilera areagotzea, ulerterrazak diren terminoak euskaraz jarrita, eta gainerakoak ele bietan, euskarari lehentasuna emanda. Ikus-entzunezkoetan arestian aipatutako irizpidea jarraituko da.

I.1.2. Argitalpenak, publizitatea, albisteak eta jendaurreko ekitaldiak:




Aurreko planean elebitasuna izan da nagusi irudi korporatiboan, eta orain dela gutxi, Elgoibarko Udalak beritu egin du irudi korporatiboa. Aurrerantzean jarraituko den irizpide nagusia ondorengoa izango da: ele bietan, euskarazkoa lehentasunez jarrita.

Argitalpenei dagokienez, salbuespenak salbuespen (Euskara Sailarenak kasu), nagusi da elebitasuna.

Albisteak eta publizitate iragarkiak nagusiki ele bietan kanporatzen ditu Udalak, baina BARREN eta barren.eus atarian argitaratzen diren Udalaren albiste eta iragarkiak euskaraz dira, beraz, kanpora begirako komunikazioan euskarak ere badu bere lekua.

Horrela bada, Udalaren argitalpen, publizitate eta albisteetan euskararen presentzia berrmatuta dago.

Helburua: Udalak ezarrita duen hizkuntza irizpidea jarraitzea: oro har, ele bietan, euskarari lehentasuna emanda. Salbuespena, jasotzaileak haurrak edo gazteak direnean, edota Euskara Sailekoren bat denean.



Nabarmena da jendaurreko ekitaldietan euskarak izan duen gorakada, %45etik %65era igo baita, eta azpimarratzekoa baita ere, gaztelania hutsean egindako aurkezpenen desagerpena.

Horrela bada, Udalaren jendaurreko ekitaldietan, euskararen presentzia bermatuta dago.

Helburua: Udalak ezarrita duen hizkuntza irizpidea hizkuntza irizpidea jarraitzea: oro har, euskaraz eta gaztelaniaz egitea aurkezpenak, euskarari lehentasuna emanda. Salbuespena, jasotzaileak haurrak edo gazteak direnean edota jasotzaile guztiak euskaldunak direla aurrez dakigunean.


1.1.3. Ingurune digitala: webguneak, sare sozialak, aplikazio digitalak...

Ingurune digitalean, erabilera % 100 da ele bietakoa. Udalaren web atarian eduki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz daude, eta atarirako sarbidean euskarazkoa da lehentasunezkoa. Erabaki hori aurreko planean hartu zuen Udalak, beraz, atarira sartzekoan euskarazko edukia ikusten du herritarrak, eta gero nahi badu gaztelaniazkoa hauta dezake.

Salbuespenak dira Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteria Sustapeneko sailak. Euskara Sailak, adibidez, elgoibarreraz.eus ataria kudeatzen du, euskara hutsean dagoena, eta Haur, Nerabe eta Gazteria Sustapeneko Saila euskara hutsean aritzen da sare sozialetan, jasotzaile guztiak ulertzen dute eta euskaraz.

1.2. HERRITARREKIKO HARREMANAK

1.2.1. Herritarrekiko idatzizko harremanak




Datu hauek Munigex aplikazioari esker lortu ditugu, 2016ko uztailetik 2017ko uztailera artekoak. Orain arte, ezinezkoa izan da Udalarentzat horrelako datuak eskuratzea, beraz, eta akatsik egon baliteke ere, hori da daukagun ituririk fidagarriena.

Oro har esan genezake, Udalak herritarrei bidalitako idatzizko komunikazio ofizialetan elebitasuna dela nagusi (% 93,83). Herritarrek Udalarari egindako idatzizko eskaeren % 26,09koa, berriz, euskaraz izan da, eta horiei Udalak emandako erantzuna euskaraz izan da ia % 41ean, gainerakoei ele bietan erantzun die.

Helburua: Udalera sartzen diren euskara hutsezko idatziei euskaraz erantzutea. Horrelakoetan elebitasunetik euskara hutsezkoa pasatzea sustatuko da. Herritarrei euskarazko inprimakiak eskainiko zaizkie hasiera batean, eta euskaraz ez badakite ele bietako inprimakia emango zaie.


1.2.2. Herritarrekiko ahozko harremanak



Langileek harrera, nagusiki, euskaraz egiten dute, bai telefonoz (% 92,7) bai aurrez aurre (% 83,1). Herritarren erdiak baino gehiagok hasierako hitza euskaraz esaten dute bai telefonoz baita aurrez aurre ere.

Helburua: Udalak ezarrita duen hizkuntza irizpidea betetzea: lehen hitza beti euskaraz izatea.

Elkarrizketak euskaraz Udalean



Elkarrizketak osotasunean hartuta, bai telefonoz bai aurrez aurre euskaraz ematen direnak % 60tik gora dira, oso datu ona dela esan behar dugu. Oro har, herritarrekin elkarrizketetan V. Plangintzaldian zehar emandako aurrerapena nabarmena izan da hasieratik amaiera bitartean. Euskarazko jardunei emandako erantzunak, beriz, % 89,5ekoa da, eta %100 beharko luke izan. Hor langile gutxi batzuen euskara trebetasun umia nabari da, baina epe motzean guztiak gai izatea aurreikusten da.


[Helburua: Udalera datozen herritarren euskarazko jardunari euskaraz erantzutea %100ean.](#)

LAN HIZKUNTZA

I.3. BARNE KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK


I.3.1. Idatzizko bame komunikazioa

Idatzizko bame komunikazioa 2017



Bileretan aurkezten diren agirien % 50,6 euskaraz dago eta % 32 ele bietan, datu ona dela iruditzen zaigu. Agiri ofizialetan ere, hau da, bame-komunikazio formalean ere euskaraz % 48,6 eta ele bietan % 39,2. Eta euskara nagusiki erabiltzen da agiri ez formaletan % 75,1.

Bileretan aurkezten diren dokumentuen bilakaera % 2013-2017




Bileretan aurkezten diren euskarazko agiriek igoera esanguratsua izan dute 2013tik 2017ra bitartean. Horren arrazoia izan daiteke legealdi honetan euskara batzordeburu guztiak euskaldunak izatea, eta ia guztiak alfabetatuak. Ordezkaritza politikoen euskara gaitasunak izugarri eragiten du Udal barruko lan-hizkuntzan, eta horren adierazgarri garbia da goiko taula.

[Helburua: Arian-arian gaztelaniazko agiriak gutxitzea bileretan.](#)

I.3.2. Ahozko bame komunikazioa

Ahozko bame komunikazioa %



Azken urteotan hobera egin du langileen ahozko bame komunikazioak lan-bileretan eta ordezkari politikoeekin. Lankideen arteko euskararen ahozko erabilerari buruz, aldiz, bi datu ditugu, bata, langileei pasatako galdetegian aitortua, % 60-65ekoa, eta bestea, udal barruan egindako neurketan jasotakoa, % 53koa. Neurketa hau 2017an egin zuen Euskara taldeak, Euskara Sailaren laguntzarekin, eta EMUNek erakutsitako metodologia erabilia. Horrelako neurketa bat egin den lehen aldia izan da, beraz, plan berrian ere errepikatzea komeni da, datuen bilakaera zer nolakoa den ikusteko. Gure herrian egindako azken kale-neurketan jasotako erabilera % 36koa izan da, eta datu hori baino askoz hobeagoa da udal langileena, baina ezin dugu ahaztu langile horiek Udalaren irudi ere badirela, eta lankideen arteko erabilerak ere eragiten duela herritarren hizkuntza aukeraketan, eta ondorioz, erabileran.

Helburua: Arian-arian, lankideen arteko euskararen ahozko erabileran eragitea, hizkuntz ohiturak aldatzeko eta euskara gehiago erabiltzeko.


I.3.3. Baliabide informatikoak

Aplikazio informatikoen % 85ean erabilgarri dago euskarazko bertsioa, eta langileek % 65ean erabiltzen dute euskarazko bertsioa.

Helburua: Gaitasuna duten langile guztiek euskarazko bertsioa lehenestea, horretarako trebakuntza eskainiz.

I.4. PERTSONEN KUDEAKETA

I.4.1. Laneko Prestakuntza




Udalak eskainitako ikastaroak euskaraz egiteko aukera % 55,7koa izan da, eta langileek euskaraz jasotako ikastaroak % 58,5 izan dira. Udalak berak antolatutako ikastaroak euskaraz izan ohi dira, baina IVAPek antolatutako ikastaro asko gaztelaniaz eskaintzen dira, batez ere, legedia berriari eta prozedura administratiboei lotutakoak. 2017an kasu, IVAPek eskainitako ikastaroetatik, udal langileek % 28,57 bakarrik egin dituzte euskaraz.

Helburua: Langileei euskaraz formatzeko aukera eskainiz, eta euskaraz zailtasunak izanez gero, trebakuntza eskaintzea. Lehentasunezkoa izango da Udalak langileentzako propio antolatutako ikastaroetan euskararen erabilera berritzea.

I.5. KANPO HARREMANAK

I.5.1. Administrazioa


EAEko herri erakundeekiko harremanak %



Udalak beste herri erakundeetatik jasotako idatziak ele bietakoak dira nagusiki, eta Udalak bidalitakoak baita ere. Ahozkoan, berriz, euskara da nagusi.

Helburua: Herri erakundeekiko harremanetan euskara sustatzea. Une aproposa da elebitasunetik euskarara jauzia egiteko horretarako baldintza egokiak ematen direnean, eta argi dago oraingo honetan posible dela hori. Kasu askotan ez du zentzu handirik ele bietako idatziak erabiltzeak beste herri administrazioekiko harremanetan; ahal denean, hobe da hizkuntza bakarra, euskara, adostea ahozko eta idatzizko komunikazioetarako.

I.5.2. Enpresa pribatuko hornitzaileak




Udalak enpresa hornitzaileei bidalitako idatzietan euskararen erabilera bermatzen du, baina haiengandik jasotako % 42 gaztelaniaz jasotzen du. Hala ere, gero eta gehiago dira euskara ere erabiltzen duten enpresak, eta hori da Udalak sustatu behar duena. Aurreko planean, Euskara Saila ahalegindu zen hornitzaileengan eragiten baina ez zuen eragin handirik izan.

Ahozko harremanean, berriz, datu ona da % 64,7aren erabilera.

Helburua: [Hornitzaileekiko harremanetan euskara sustatzea.](#)

I.6. HIZKUNTZA KUDEAKETA

I.6.1. Sortze hizkuntza




Oraindik ere asko dira gaztelaniaz sortutako idatziak % 40,1, eta ondorioz, maiz jotzen da itzulpenetara. Hala ere, Euskara Sailak lan handia egin du aurreko planean Munigexen langileen eskura jari ziren idatzi guztien euskarazko eta ele bietako ereduak prestatzen, gainera, etengabe sortzen ari dira tramite eta inprimaki berriak, beraz, itzultzailea arduratzen da horien euskarazko bertsioak prestatzen. Behin ereduak prest daudenean, langileari jakinarazten zaio aurrerantzean horiek erabil ditzan.

Helburua: [Sortze hizkuntza euskara izan dadin umatsak ematea. Horrelakoetan Euskara Sailaren laguntza izango du langileak eta zuzentze lana ere egingo dio.](#)

I.6.2. Hizkuntza irizpideak

Udalak 2016an eguneratu zituen Hizkuntza ofizialen Erabilerarako Irizpideak, eta III. Eranskinean jasota daude. Irizpideen betetze maila % 85ekoa da gaur egun Elgoibarko Udalean.

I.6.3. Hizkuntza eskakizunak



Lanpostuen % 83,78k ezarrita du derrigortasun data, eta hizkuntza eskakizunen betetze maila % 92koa da. Ikusten denez V. Plangintzaldian (2013-2017) 8 puntu gora egin dute egiaztapenek.

Elgoibarko Udalari, berez, dagokion derrigortasun indizea % 69,88koa da, eta indizearen gaitetik gaude. Atal bereziko langile batzuek izan ezik, gainerako guztiek dute ezarria derrigortasun-data. Gainera, langile gehienak hizkuntza eskakizunaren jabe dira, beraz, euren lan eginkizuna osorik edo partez, behintzat, euskaraz bete dezakete.

Helburua: Sortzen diren lanpostu berrietan ere derrigortasuna ezartzea, etorkizunean lanpostu guztietan euskara gaitasuna duten langileak izateko. Salbuespena lantaldeko langileak izan daitezke.

I.6.4. Ordezkarri politikoaren hizkuntza gaitasuna

2013-2017 planean bi legealdi izan ditugu, eta aurrekotik hona asko hobetu da ordezkarri politikoaren euskara ezagutza. Gaur egun, 17tik bakarra da euskaraz ez dakiena, eta ia batzordeburu guztiak dira euskaldun alfabetatuak. Horrek eragin handia izan du erabilera orokorrean, eta bereziki, lan-bileretan eta langileen zinegotziekiko ahozko erabileran 2012an % 60 izatetik 2017an % 75 izatera pasa baita.

Helburua: Hurrengo legealdian, gutxienez, oraingo egoera bera mantentzea edota hobetzea.

I.6.5. Langileen partaidetza eta planarekiko balorazioa.

Erabilera Planaren eta Bikainen berri emateko, bilera ugari egin dira langileekin eta aurkezpenak ere egin dira. Siadecok erabilera plana baloratzeko prestatutako galdetegia ere ia langile guztiek bete dute, eta % 87k balorazio positiboa egin dute. Urrezko Bikain lortu izana ere ondo baloratu dute, eta lorpen hori eurekin partekatze ahalegina egin zuen Udalak, ziurtagirien banaketa ekitaldira langileak ere gonbidatuz. Euskara Sailak 2013-2017 planean jarri zuen abian Langileen Euskara taldea. Garrantzitsua izan da azken urteotan Euskara taldeak egindako lana (galdetegiak, ahozko neurketak...). Euskara

taldetik sustatutako hainbat ekimenetan ere gainerako langileen parte-hartzea ona izan da, hala nola, Euskararen Eguneakoak, Korrika, Euskaraldiaren aurkezpena...

Helburua: Langileen Euskara taldea berrantolatzea, eta sail bakoitzean euskara arduradun bat izendatzea Erabilera Plan berriko helburuak sailez sail bete diren ala ez jarraipena egiteko.

2. ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA

Plan honen eragin aldia 2022ko abenduaren 31n bukatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza normalizaziorako prozesuaren VI. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

Plan honen eragin eremuak Elgoibarko Udala eta bere ardurapeko erakunde autonomiadunak hartzen ditu.

* Euskararen Erabilera Planeko parte-hartzaileak:

Ondorengoak dira Erabilera Normalizatzeko Planean parte hartuko dutenak:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direnez, zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiak ukitutako langile eta zerbitzuek.
- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data gainditua izanik, hizkuntza eskakizuna bera (edo baxuago bat) egiaztaturik duten langileek.
- Derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan dihardutenek ere aukera izango dute planean parte hartzeko euskara gaitasuna egiaztaturik badute, euskararen gaitasuna neuriren batean izatea baita gakoa.

3. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA.

86/1997ko Dekretuaren 11. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$.

Horren baitan, VI. Plangintzaldi honetan, Elgoibarko Udalaren nahitaez bete beharreko **indizea % 69,88koa** da 2016 urteko erroldako datu soziolinguistikoen arabera.

4. VI. ERABILERA PLANAREN HELBURU OROKORRAK

- Elgoibarko Udalaren esparru guztietan euskara zerbitzu hizkuntza izango dela bermatzen jarraitzea, eta hobetu beharreko arloak identifikatu eta horietan eragitea. Hau da, herritarrek Elgoibarko Udalarekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, hizkuntza ofizial bat zein bestea, erabiltzeko eskubidea bermatzen jarraitzea.
- EAEko beste administrazioekiko harreman hizkuntza sustatzea, ahoz zein idatziz, bereziki, Eusko Jaurilaritzarekin eta Aldundiarekin.

- Euskara Elgoibarko Udalaren lan hizkuntza izaten jarraitzea, ahoz zein idatziz, eta horretarako, prestakuntza eta baliabide egokiak ematea.

5. VI. PLANGINTZALDIRAKO PROPOSATURIKO LAN ILDOAK.

ZERBITZU HIZKUNTZA

Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

5.1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangomia, mahai gaineko txarteltxoak...)

5.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Jendaurreko errotulazio eta ikus-entzunezkoak euskaraz ere egotea. Eta gaztelaniarekin batera erabiltzen direnean, euskarazkoari lehentasuna ematea.

Udal eraikinen barruan eta kanpoaldean jartzen diren errotuluak eta kartelak ondorengo kasuetan euskara hutsean idatzi ahal izango dira:

- Hitzak eta mezuak euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Hitzak eta mezuak piktograma bidez lagunduta daudenean, eta horren bitartez eraz ulertzen direnean.
- Oso erabilera hedatua duten izendapenak: Kultur Etxea, Udaltzaingoa, Udaletxea...

5.1.2. Argitalpenak, publizitatea, albisteak eta jendaurreko ekitaldiak

Argitalpenetan, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea. Eta bi hizkuntza ofizialak batera azaltzen direnetan, lehentasuna euskarari ematea.

Prensaurrekoak euskara eta gaztelania tartekatuz egiten direnean, euskarari lehentasuna emango zaio, lehenengo euskaraz eta jarraian gaztelaniaz. Parte-hartzailea elebiduna ez den kasuetan, komenigarria litzateke Udalaren izenean jarduten duenaren ondoan euskaraz arituko den norbait egotea.

5.1.3. Ingurune digitala

Webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz ere egotea, eta defektuz euskarazko sarbidea ematea. Haur eta gazteei zuzendutakoetan euskara hutsezkoek izango dute lehentasuna, betiere, euskaraz ez dakitenen eskubideak urratzen ez badira.

Elgoibarko Udalaren webguneko eduki nagusiak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira, eta webgunera sartzean, hasierako hizkuntza euskara izango da eta aukera egongo da

gaztelania hautatzeko.

5.2. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.

5.2.1. Idatzizko harremanak

Herritarrentzako Arreta Bulegoan dauden idazki ele bietakoez gain, euskara hutsezkoak ere egotea eta herritarrei eskaintzea, euskarazko harremana sustatze aldera.

5.2.2. Ahozko harremanak

Herritarrekiko ahozko harremanetan euskararen erabilera areagotzea eta euskarazko komunikazioa eskatzen duenari euskaraz erantzungo zaiola bermatzea. Harrera beti euskaraz egitea, hau da, lehen hitza, bai aurrez aurre bai telefonoz, beti euskaraz izatea.

LAN HIZKUNTZA

Lan harremanetan euskararen erabilera areagotzea.

5.3. BARNE KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK

Komunikazioan eta lan-tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzea.

5.3.1. Idatzizko bame komunikazioa

Euskararen erabilera areagotzea idatzizko komunikazioetan. Euskara lan hizkuntza izateko ahalegina egingo da, Udalak langileen esku beharrezkoak diren bitartekoak jariz: trebakuntza saioak, idatzi eredu egokiak, itzulpen zerbitzua....

Bame funtzionamendurako komunikazio administratiboak (zirkularrak, oharak, langileen eskaerak..) ahal den guztietan euskaraz izango dira. Alegia, euskaraz jarduteko gaitasuna duten langileek euskaraz idatziko dituzte barruko komunikazio administratiboak, betiere, hartzailearen hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta. Udalak, horretarako, beharrezkoak diren neurriak jarriko ditu langileen esku (inprimakiak, idatzi ereduak, trebakuntza, aholkularitza eta itzulpengintza).

5.3.2. Ahozko bame komunikazioa

Euskararen erabilera areagotzea ahozko komunikazioetan.

Atalen arteko harremanetan euskarazko komunikazioa sustatuko da, bai langileen arteko harremanetan bai langileen eta zinegotzien artekoetan.

Garrantzi handikoa da lanlekuan langileek euren artean euskaraz hitz egitea, entzuten den hizkuntza, nolabait esateko, Udalaren irudia ere badelako.

5.3.3. Baliabide informatikoak

Euskari informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea.

Langileek erabiltzen dituzten programa eta tresna informatikoak euskaraz lan egiteko prestaturik egongo dira. Softwarea homitu eta instalatzerakoan, programaren euskarazko bertsioa instalatzea lehenetsiko da.

Aurrerantzean jartzen diren ekipo berrietan, salbuespenak salbuespen, euskarazko bertsioa jarriko da defektuz. Sistema eragilea eta aplikazioak dagoeneko euskaraz instalatuta izan arren, euskaraz erabiltzen ez dituzten langileei motibazio saioak eta laguntza baliabideak eskainiko zaizkie.

5.4. PERTSONEN KUDEAKETA

Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.

5.4.1. Laneko prestakuntza

Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.

Zeregin hori errazteko, hainbat baliabide eta bitarteko eskainiko dira, besteak beste, hizkuntza prestakuntza (ikastaroak eta trebakuntza), aholkularitza, zuzenketa, itzulpena eta baliabide informatikoak.

Euskara maila hobetu nahi duten langileek **euskara ikastaroetan** parte hartu ahal izango dute, baldin eta Udalak eta HAEE/IVAPek ezartzen dituzten baldintzak betetzen badituzte.

Euskara maila egokia izanik, baina eguneroko lanak euskaraz egiteko zailtasunak dituzten langileek **trebatzeko aukera** izango dute. Trebatzailearen laguntzari esker, lana euskaraz egiteko baliabideak eskuratu ahal izango dituzte, eta idatziak estandarizatzeko aukera izango dute.

5.5. KANPO HARREMANAK

Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.

5.5.1. Administrazioa

Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.

Elgoibarko Udalak idatziak euskaraz edo ele bietan bidaliko dizkie EAEko gainerako administrazioei, azken hauetan euskarari lehentasuna emanda.

Dena dela, euskara hutsezko komunikazio administratiboak bidaliko zaizkie propio hala eskatzen duten administrazioei edota hala adosten badute. Era berean, euskara hutsean funtzionatzen duten administrazioetara ere euskara hutsezko komunikazioak bidaliko dira. Erakundeekin hitzarmenak sinatzeak lagundu egingo luke gero eta euskara gehiago erabiltzen.

Ahozko komunikazio eta harreman guztiak euskaraz izan daitezzen sustatuko da euskara ofiziala den eremuko administrazioarekin.

Beste administrazio batzuekin egin beharreko batzarretan, bileraren hasieran, teknikariak edo zinegotziak bilera zein hizkuntzatan bideratuko den galdetuko du, eta bertaratutakoen esana aintzat hartuko du.

5.5.2. Enpresa pribatu homitzaileak

Euskararen erabilera areagotzea homitzaileekiko harremanetan.

Homitzaileekiko harremanak aztertuko dira eta, ahal den guztietan, euskaraz izan daitezzen sustatuko da. Esaterako, homitzaileei, besteak beste, aurrekontuak eta fakturak euskaraz edo ele bietan helarazteko eskatuko zaie. Udalak beste enpresen bitartez eskaintzen dituen zerbitzuetan Hizkuntza Irizpideen betetze mailaren jarraipena sistematizatzen saiatuko da, herritarren eskubideak betetze aldera.

5.6. HIZKUNTZA KUDEAKETA

Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea, euskararen kudeaketa Udalaren kudeaketa orokorrean txertatzea eta Udaleko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.

5.6.1. Sortze hizkuntza

Langileek euren laneko idatziak euskaraz sortzea sustatzea.

Nahiz eta Udaleko langileak, neuri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko eta dokumentuak hizkuntza horretan idazteko prestatuta egon, egia da Udalean orain arte egon den dinamika orokorragatik joera nagusia izan dela testu asko gaztelaniaz sortu eta gero euskarara itzultzerara bidaltzea. Hala ere, azken urteotan joera aldatzen ari dela ikusi da, eta zenbaitetan itzulpena euskaratik gaztelaniara egin behar izaten da. Gero eta gehiago dira euskaraz sortu eta zuzentzera Euskara Sailera bideratzen diren idatziak.

Langileen gaitasun maila altua dela jakinda, sustatu beharko litzateke sail bakoitzeko langileek euskaraz ere sortzea, itzulpen zerbitzura jo gabe. Horretarako, erakundearen behar besteko laguntza izango du langileak (trebakuntza saioak, zuzenketa programak...).

5.6.2. Hizkuntza irizpideak

Udalak zehaztuta dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideak (**ikus III. Eranskina**) bermatzea.

Gaur egun langile gehienek dute euskaraz lan egiteko gaitasuna, maila batean edo bestean; dena dela, oraindik ere hainbat tokitan, urteetako inertziaren indarrez, gaztelaniaz jarraitzen da lanean. Eta garbi dago, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, bi hizkuntza ofizialak berdintasunez erabili behar direla.

Horrenbestez, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan oinarrituta, Elgoibarko Udalak zehaztuta du zein izan behar den bi hizkuntza ofizialen erabilera Udalean. Bertan jasota daude, besteak beste, hizkuntza ofizialak nola erabili hizkuntza paisaian, jendaurreko ekitaldietan, ahozko harremanetan zein idatzizkoetan edo komunikazio telematikoetan; itzulpen irizpideak ere finkatuta daude, eta baita erregistroan, diru-laguntzetan, kontratazioetan edo erakundeak kudeatzen dituen argitalpenetan zer-nolako tratamendua eman behar zaien bi hizkuntza ofizialei ere.

Hizkuntza Ofizialen Erabilera bermatzeko Irizpideak lan jardunei egokituko dira VI. Plangintzaldian.

Hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak ezarriko dira, eta jarraipenerako prozedura finkatuko da.

5.6.3. Hizkuntza eskakizunak

Hizkuntza eskakizunen plangintzari jarraipena egingo zaio.

Hizkuntza-eskakizunen esleipena lanpostu bakoitzaren ahozko eta idatzizko funtzio komunikatiboetara begira egiten da. Euskararen ezagutza gero eta altuagoa da, adibidez, V. Plangintzaldiaren amaieran (2017) hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila % 92koa izan da. Gauzak horrela, une aproposa da lan jardunetan euskararen erabilera areagotzeko; hala ere, komeniko litzateke hizkuntza eskakizunen plangintzari jarraipena ematea, etorkizuneko lanpostuetan ere euskararen ezagutza bermatzen jarrai dadin.

Langileen prestakuntzarako proposamena hau da:

- Langile batzuek, nahiz eta euren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan, zailtasunak dituzte eguneroko lana euskaraz egiteko. Arazo horri irtenbidea emateko proposatzen dira trebakuntza saioak eta unean uneko arreta pertsonalizatua.
- Trebakuntza era puntualean eskainiko da, hau da, langile bakoitzak dituen behar jakinen arabera, adibidez, txostenak egiten trebatzeko, oharak idazten trebatzeko e.a., egoki irizten den ordu kopurua zehaztuz eta, ahal dela, saio pertsonalizatuak antolatuz, eraginkortasunari begira.

5.6.4. Ordezkaritza politikoen hizkuntza gaitasuna

Legealdi honetan 17 ordezkarietatik 16 (% 94) ordezkaritza dira euskarazko gaitasuna dutenak eta hori dezente igarri da lan-bileretako erabileran eta eurekiko erabileran. Gainera, batzordeburu guztiak dira euskara gaitasundunak. Legealdi honetan, zinegotzi bakarra da euskaraz ez dakiena, eta Osoko Bilkuretan aldi bereko itzulpena eskaintzen zaio. Plangintzaldi berrian, gutxienez, oraingo legealdiko egoera mantentzea edota hobetzea litzateke erronka.

5.6.5. Langileen partaidetza eta haien balorazioa planarekiko

Langileei begira egindako ETM gogoeta-motibazio saioei esker, langileen parte-hartzea inoiz baino altuagoa izan da Euskara Zerbitzuak antolatu edota parte hartu duen Euskararen Eguneko ekimenetan, Komikian, Euskaraldiaren aurkezpenetan... Aurten, berriz, Euskaraldian, II eguneko ariketa sozialean, parte hartzeko gonbita egingo zaie. Langileak horretara animatzeko asmotan, Euskara Taldeko kideak

inplikatuko dira gainerakoak motibatzen. Bestalde, komeni da lidergoa duten ordezkari politikoak zein langileak identifikatzea eta pertsona horiek inplikatzeko Erabilera Planaren helburuak betetze aldera.

Langileen planarekiko balorazioa positiboa izan da, salbuespenak salbuespen, izan ere, oso ondo baloratu baitute BIKAIN ziurtagiria lortu izana eta euskararen erabilera sustatzeko erakundeak egiten duen ahalegina. Horren adierazgarri izan zen, Bikain ziurtagirien banaketa ekitaldira, udal ordezkariekin batera, joan zela langile talde bat. Hori horrela, plan berri honetan, langileak motibatzekeo sentsibilizazio saioak egiten jarraitzea litzateke asmoa, eta langileen ordezkariak antolaturiko bilera eta aurkezpenetan euskara gehiago erabiltzeko baliabideak jartzea.

6. NORMALIZAZIO EKINTZAK

Hona hemen Euskara Zerbitzuak VI. Plangintzaldian bideratzea aurreikusten dituen normalizazio ekintza nagusiak:

6.1. Hizkuntza prestakuntzari dagozkion normalizazio ekintzak:

- Hizkuntza prestakuntza orokorra eskaintzea, langileek euskara ikastaroetara joateko dituzten baldintza eta arautegiarekin bat etoriz.
- Erabilera helburuak dituzten hizkuntza trebakuntza saioak eskaintzea.
- Laneko prestakuntza ikastaroetan euskarazko eskaintza gehitzea.
- Hiztegi terminologikoak langileen eskura jartzea.
- Langileei hizkuntza-aholkularitza eskaini eta idazkien zuzenketak egitea uneoro.

6.2. Baliabide materialei dagozkien normalizazio ekintzak:

- Aplikazio informatikoen euskarazko bertsioa langileen eskura jartzea.
- Baliabide informatikoen eskaintzen dituzten aukeren berri ematea langileei (zuzentzaile ortografikoak, hiztegiak, banku terminologikoak, itzulpen memoriak...).
- Hala behar den kasuetan, itzulpenak egitea, horretarako zehaztutako irizpideen arabera.
- Idazki normalizatuak sortzea hizkuntza ofizialen erabilera errazteko.

6.3. Euskararen erabilerari dagozkion normalizazio ekintzak:

V. Plangintzaldian zehar euskararen erabileran eragiteko, langileen parte hartzea ezinbestekoa zela deliberatu zen, eta Euskara Taldea sortzea erabaki zen. Talde hau sail bakoitzeko langile batez osatuta dago. Guztira, 11 lagunek osatzen dute taldea, tartean bi euskara teknikari. Komenigarria ikusten dugu taldetik ahalik eta langile gehienak pasatzea, euskararen erabileran eragina izan dezan neurri honek. V. Plangintzaldiaren bukaera aldera, talde honetako kideek ahozko neurketa egin zuten sail guztietan. Oso ariketa ona dela pentsatzen dugu, eta horregatik, VI. Plangintzaldian zehar ere ariketa bera egingo dugu eta emaitzak alderatu ikusteko ea aurrerapausorik izan den.

Euskaraldia bezalako ekimenak beharrezkoak dira hizkuntz ohituretan eragiteko eta ahozko erabilera areagotzeko.

7. AZPIEGITURA

Plan honekiko arduradun bakoitzaren funtzioak eta eginbeharrak jaso nahi dira atal honetan. Orain arte osatutako baliabideak kudeatu eta planaren dinamika ziurtatzeko humengo azpiegitura eta funtzioak proposatzen dira:

7.1. Hizkuntza Normalizaziorako teknikaria:

Betebeharrak:

- Hizkuntza eskakizunen eta demigortasun daten kudeaketa eta betetze maila.
- Hizkuntza prestakuntza zein trebakuntza saioen koordinazioa eta jarraipena.
- Trebakuntza espezifikoa eta aholkularitza.
- Lan-jardun eta alorkako edukien jarraipena aplikazio informatiko bidez.
- Hizkuntza irizpideen jarraipena, horretarako izendatutako erantzuleekin batera.
- Jarraipen batzordearen kudeaketa.

7.2. Itzultzailea

Betebeharrak:

- Erabakitako itzulpenen ardura eta ereduen egokitzapenak.
- Hizkuntza aholkularitza eta zuzenketa zerbitzua.
- Itzulpenen eta zuzenketen kudeaketa, euskararen erabilera zuzena bermatzeko.

7.3. Kultura eta Euskara Batzordea

Partaideak: Kultura eta Euskara Batzordeko zinegotziak, kultura teknikaria eta euskara teknikaria.

Betebeharrak:

- Planaren kudeaketaren ardura eta erantzukizuna, hizkuntza normalizaziorako teknikariarekin eta Jarraipen Batzordearekin koordinatuz.

7.4. Jarraipen Batzordea

Partaideak:

- Euskara arloko zinegotzi arduraduna.
- Pertsonalburua.
- Udaleko hizkuntza normalizaziorako teknikaria.
- Zuzendaritza Batzordeko kideak.

Betebeharrak:

- Jarraipen txostena aztertu eta balorazioa egitea.
- Helburuen betetze maila baloratzea eta egokitzapen neurriak onartzea.



- Gobernu Batzarrari eta Kultura eta Euskara Batzordeari helarazi beharreko iradokizunak lantzea eta koordinatzea.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinazioa bermatzea.

7.5. Gobernu Batzarra

Betebeharrak:

- Kultura eta Euskara Batzordeak egindako proposamenak baloratzea eta erabakiak hartzea.
- Plana aurrera eramateko baldintzak erabakitzea eta baliabideak esleitzea.
- Hizkuntza irizpideak progresiboki martxan jartzeko erabakiak hartzea.